**HABE**

# IKASLEEN DIRULAGUNTZAK
# 2019KO DEIALDIA

## ESKAERA EGITEKO JARRAIBIDEAK

### 1. ESKAERA AURKEZTEKO BIDEA AUKERATU

1.1. Dirulaguntzaren eskaera Eusko Jaurlaritzako egoitza elektronikoaren bitartez egin behar da eta bertarako sarbide zuzena www.euskadi.eus/zerbitzuak/1038702 helbidea duzu. Halaber, HABEren web orrialdean sartu IKASLEENTZAKO DIRULAGUNTZAK/EGOITZA ELEKTRONIKOA. SARBIDEA helbidean eta bertatik ere egoitza elektronikora joango zara.

1.2. Eskaera egiteko ordenagailua erabili behar duzu. Egoitza elektronikoan zaudela, bi aukera ikusiko dituzu: "Eskabide elektronikoa" eta "Aurrez aurreko aurkezpena".

1.3. "Eskabide elektronikoa" hautatuz gero, **identifikazio elektronikoa egin behar duzu**, ziurtagiri elektronikoa erabiliz. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak identifikazio elektronikoko bi sistema eskaintzen ditu:

a) Erabiltzailea, pasahitza eta itsasontzi-jokoa (koordenadak) edo **b@kq txartela:** sistema honek ez du inolako softwarerik instalatzeko eskatzen, ezta inolako hardwarerik ere zure gailu elektronikoan.
b) Ziurtagiri digitalak (eNAN, herritarren ziurtagiria, IZENPE txartela, etab.): **Sistema honek zure gailu elektronikoan softwarea eta hardwarea instalatzeko eskatzen du.**

Identifikazio elektronikoa egin ondoren, hurrengo pausua **datuak betetzea** da eta, **eskabide elektronikoa hautatu duzunez, formularioaren datu gehienak beteta izango dituzu**: datu pertsonalak, egiaztatutako mailak eta deialdiaren arabera diruz laguntzea dagokizuna. Eta zuk, bakar bakarrik, honako hauek sartu beharko dituzu: ordaindutako matrikulak; beste dirulaguntzarik jaso baduzu, zein udalek eta zenbat eman dizun; eta azkenik, dirulaguntza zein banku-kontutan jaso nahi duzun. Gainera, nahi izanez gero, eskaera eskuko telefonotik edo smartphonetik egin dezakezu. **Azkenean, inora joan behar izan gabe, eskaera eginda izango duzu.**

**a) aukera gomendatzen dizugu: erabiltzailea, pasahitza eta itsasontzi-jokoaren b@kq txartela, erabilera erraza duelako eta berehala eskuratzen delako.**

1.4. "Aurrez aurreko aurkezpena" hautatuz gero, **bete beharreko formularioa hutsik edukiko duzu eta datu guztiak zeuk idatzi beharko dituzu**: datu pertsonalak; egiaztatutako mailak; ordaindutako matrikulak; beste dirulaguntzarik jaso baduzu, zein udalek eta zenbat eman dizun; eta azkenik, dirulaguntza zein banku-kontutan jaso nahi duzun.

Gainera, datuak bete ondoren, **formularioa inprimatu, sinatu eta ZUZENEAN zerbitzuko edozein egoitzatan, HABEren bulego batean edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen (urriaren 1eko 39/2015 Legea) 16. artikuluak zehaztutako tokietan, eta EAEko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko Dekretuan (apirilaren 29ko 72/2008 Dekretua) adierazitakoetan**.

**BERAZ, DIRULAGUNTZAREN ESKAERA ESKABIDE ELEKTRONIKOAREN BIDEZ EGITEA GOMENDATZEN DIZUGU.**

# HABE

**NON ETA NOLA LORTU ITSASONTZI-JOKOAREN TXARTELA (b@kq txartela)?**

**NON: edozein KZgunetan, ZUZENEAN zerbitzuaren bulegoetan edo IZENPEren webgunean jasotako gainerako arreta presentzialeko puntuetan.**

**NOLA: bertara joan, zure NAN aurkeztu eta unean bertan emango dizute.**

**NOLA ERABILI ITSASONTZI-JOKOAREN TXARTELA (b@kq txartela)?**

Identifikazio-modu honek hiru atal ditu:

- **Erabiltzailea**: zure NAN-zenbakia, kontrol-letra barne.
- **Pasahitza**: zuk zeuk bakarrik ezagutzen duzun 8 karaktere alfanumerikoen multzoa.
- **Itsasontzi-jokoa**: egitura hau daukan koordenatu-sistema bat:

| ABDE | FGHI | JKLM | NOPR |
|---|---|---|---|
| 2236 | 2053 | 8467 | 8538 |

Identifikazio elektronikoa egiteko datu hauek sartu behar dituzu:

1. **NAN**: NAN zenbakiak sartu behar dituzu, kontrol-letra barne.
   (Adibidez, 12345678B)
2. **Pasahitza**: zure pasahitzaren 8 karaktereak sartu behar dituzu. (Adibidez, 123456Po)
   *OHARRA: pasahitza gogoratzen ez baduzu, hautatu "Pasahitza ahaztu al zaizu?" aukera.*




"**SARTU**" botoia aukeratu.

Hurrengo pantailan, sistemak hiru letra eta pantailako teklatua agertaraziko dizkizu. Adibidez: G H R




Pantailako teklatua erabilita, eskatzen dizkiguten 3 koordenatuak sartu behar dituzu.

(Adibidez, 058 koordenatuak aukeratuko zenituzke, GHR letrei dagozkienak).

| G | H | R |
|---|---|---|
| **0** | **5** | **8** |

"**JARRAITU**" botoia aukeratu.

Modu elektronikoan identifikatu ondoren, eskaera egiteko formulariora joango zara eta datu gehienak bistan izango dituzu.

## 2. ESKAERA OSATU (formularioa bete) ESKABIDE ELEKTRONIKOAREN BIDEZ

Edozein laguntzatarako eskabide elektronikoa egiteko pausuak hauek dira:

1.- Lehen pausua: Identifikatu
2.- Bigarren pausua: Datuak bete
3.- Hirugarren pausua: Dokumentuak erantsi (beharrezkoa bada)
4.- Laugarren pausua: Sinatu eta bidali

### 2.1. Identifikatu




Nahitaez bete beharreko datuak dira (*) izartxo gorriz markatutako eremuak.

**“Eskabide elektronikoa” egiten baduzu, zure datu pertsonalak eta egiaztatutako mailak beteta izango dituzu.**

**“Aurrez aurreko aurkezpena” egiten baduzu, formularioa hutsik egongo da eta atal honetako datu guztiak sartu beharko dituzu.**

Lehendabizi, adierazi zeure izenean (titular gisa) jardungo duzun ala beste pertsona edo erakunde baten izenean (ordezkari gisa).




Ondoren, jakinarazpenetarako datuak adierazi.

JAKINARAZPENETARAKO DATUAK Ezkutatu

**Jakinarazpen-hartzailea**

Espedientea tramitatzen den bitartean Administrazioak bidalitako jakinarazpenak honi zuzenduko zaizkio:

CIUDADANO FICTICIO ACTIVO (99999990S)

**Jakinarazpen, komunikazio eta abisuen hizkuntza**

Mezu elektroniko eta abisu-mezu bidezko jakinarazpen eta komunikazioak zuk aukeratutako hizkuntzan bidaliko dizkizugu.

* (•) Euskara ( ) Gaztelania

**Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala**

* Jakinarazpen eta komunikazioak jasotzeko kanala aukera dezakezu

(•) **Elektronikoa:** Nire karpeta guneko jakinarazpen eta komunikazioen atalera igorriko dira. Bertan sartzeko, identifikazio elektronikorako bitarteko bat beharrezkoa da.

( ) **Postala:** Atal honetan jarri duzun helbidera igorriko dira.

Kanal elektronikoa: 10 egun naturaletan jakinarazpen elektroniko batera sartzen ez bazara, ulertuko dugu ez duzula onartu. Ondorioz, izapidea egintzat joko da, eta administrazioak prozedura tramitatzen jarraituko du.

**Abisuak jasotzeko datuak**

Ondorengo datuak mezu elektroniko eta SMS bidezko jakinarazpen abisuak bidaltzeko erabiliko dira.

* Posta elektronikoa rrrr123@jkl.com

Telefono mugikorra

Datu guztiak adierazitakoan, sakatu “HURRENGOA”.

**Datuen babesari buruzko informazio oinarrizkoa**

Eskabidean agertzen diren datu pertsonalak erabiliko dira, eta tratamendu-jarduera honi erantsiko zaizkio EUSKARA MAILA EGIAZTATZEKO DEIALDI IREKIEN KUDEAKETA

- **Arduraduna:** HABEren Zuzendaritza Nagusia
- **Helburua:** Euskaltegietako eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuetako ikasleei zuzendutako dirulaguntzen deialdiak kudeatzea
- **Legitimazioa:** Dirulaguntzen Lege Orokorra, azaroaren 17ko 38/2003 Legea, eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legea (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren bidez onartutako Testu Bategina)
- **Hartzaileak:** Eusko Jaurlaritzaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoari, eskumena duen Udalari edo Foru Aldundiari, Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, eta, hala suertatuz gero, justizia-organoei ere jakinarazi ahal izango zaie
- **Eskubideak:** Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita informazio gehigarrian jasotzen diren bestelako eskubide batzuk ere.
- **Informazio osagarria:** Gure web-orrian kontsulta dezakezu Datuen Babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua. https://www.euskadi.eus/dbao/1038702

Honen arabera beteta:
- Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra (https://www.boe.es/doue/2016/119/L00001-00088.pdf). 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa. (https://www.boe.es/boe/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673.pdf).

HURRENGOA

## 2.2. Datuak bete

Eskabide-inprimaki guztiek dute “IKASLEAREN DATUAK” izeneko hasierako fitxa eta “ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK” izeneko amaierako fitxa. Bi fitxa horien artean, egiaztatutako mailak eta ordaindutako matrikula-gastuak agertuko dira fitxetan antolatuta.




Eskabidea betetzen ari garela, sartu ahala, datuak gordetzen joatea komeni da (Word-en daukagun “Gorde honela...”  aukera bezala), “**Eskabidea gorde**” aukera erabilita. Horrela, gorabeheraren bat gertatuz gero (saioa amaitu, tentsioa eten, eta abar), sartutako datuak ez ditugula galdu ziurtatuko dugu.

OHARRA: “Eskabidea gorde” aukerak **EZ du esan nahi** eskabidea bidali eta Administrazioan erregistratuta geratu denik.






“IKASLEAREN DATUAK” fitxan eremu hauek daude:

- Ikaslearen datuak harremanetarako.
- Harremanetarako telefonoak.
- Bankuaren datuak

Ondoren, maila egiaztagarriak fitxa ikusiko duzu.


MAILA EGIAZTAGARRIAK Ezkutatu

Egiaztutako mailak

Maila hautatu ondoren, egiaztagiria aukeratu

A1 maila Hautatu aukera

A2 maila Hautatu aukera

B1 maila Hautatu aukera

B2 maila Hautatu aukera

C1 maila Hautatu aukera

C2 maila Hautatu aukera

Egiaztatutako maila adierazita: EZ

Ondoren, ordaindutako matrikula-gastuak adierazi.


ORDAINDUTAKO MATRIKULA-GASTUAK Ezkutatu

Ordainagiriak

* Adierazten dut honako diru-kopuruak ordaindu ditudala matrikula gisa.

- 2018-2019: Euskaltegia edo autoikaskuntzarako zentroa:
  Hautatu aukera Zenbatekoa (eur.): 250
- 2018-2019: Euskaltegia edo autoikaskuntzarako zentroa:
  Hautatu aukera Zenbatekoa (eur.):
- 2018-2019: beste euskaltegi edo zentroetan:
  EUSKALTEGI BATZUK Zenbatekoa (eur.):
- 2017-2018: Euskaltegia edo autoikaskuntzarako zentroa:
  Hautatu aukera Zenbatekoa (eur.):
- 2017-2018: Euskaltegia edo autoikaskuntzarako zentroa:
  Hautatu aukera Zenbatekoa (eur.):
- 2017-2018: beste euskaltegi edo zentroetan:
  EUSKALTEGI BATZUK Zenbatekoa (eur.):

"ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK" izeneko fitxan daude bilduta laguntzen deialdiaren araudian aipatutako erantzukizunpeko adierazpen guztiak.

**ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK** Ezkutatu ^

**Erantzukizunpeko adierazpenak**

Aitortzen da:

**Bateragarritasun-adierazpenak**

- [ ] Ez da laguntzarik jasotzen ari xede eta helburu berarekin administrazio publikoen edo erakunde pribatuen eskutik.
- [ ] Administrazio publiko edo erakunde pribaturen bati laguntza eskatu dio eta eman egin dio (atal honetako datuak "Beste diru-laguntzak" eremuan zehaztu behar dituzu).

**Zehapen-deklarazioak**

- [x] Ez du diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzea galarazten duen administrazio-zehapen edota zehapen penalik.
- [x] Ez du diru-laguntza publikoak jasotzeko ez-gaitzen duen legezko debekurik, berariaz adierazita sexu-bereizkeriagatiko debekuak.
- [x] Itzulketa- edo zehapen-prozedura guztiak amaituta dituzu

**Baimenak**

- [ ] * Pertsona fisikoen datu pertsonalen tratamendurako eta babeserako Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduak ezarritakoaren arabera eta Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa betez, baimena ematen dio HABEri bere datuak HABEren IKASLEAK izeneko fitxategi informatizatuetan sartzeko, erakunde honek, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea Sortaraztekoa eta Euskaltegiak Araupetzezkoa izeneko azaroaren 25eko 29/1983 Legeak ematen dizkion ahalmenen arabera, dagokion diru- laguntzen programa burutu dezan eta, diru-laguntzen arteko bateragarritasuna bermatzeko, datu horiek Euskal Autonomia Erkidegoko foru aldundiek eta udalek helburu berbererako dituztenekin erkatzeko.

  Baimen hori berak bere oldez egina, era zehatzaz, aldez aurretik jakinaren gainean egonda, zalantzarik gabea eta epe-mugarik gabekoa da eta erantzukizunpeko adierazpen honen bitartez ematen du. Era berean, honen bitartez ere, aipatutako araudian aurreikusitako sartzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkaratzeko eskubideak HABEren Zuzendaritza Nagusiaren aurrean (Vitoria-Gasteiz kalea 3, 20018 Donostia) gauzatu ahal izango dituela adierazten du.

**OHARRA: Nahitaez bete beharreko datu** guztiak sartu eta gero, "**HURRENGOA**" botoia aukeratuko duzu.

## 2.3. Dokumentuak erantsi (beharrezkoa bada)

**“Eskabide elektronikoa”** egiten baduzu, **egiaztatuta dituzun mailak sartuta izango dituzu eta ez duzu ezer gehiago erantsi behar izango**. Hala ere, agertzen zaizkizun agiriez gain, beste agiririk baduzu, eskaneatu PDF formatura, eta erantsi **“GEHITU BESTE MOTA BATEKO DOKUMENTUA”** klikatuz.




HABEk ofizioz egiaztatuko ditu eremu honetan zerrendatzen diren datuak.




OHARRA: Egiaztatze horren aurka egonez gero, eskatutako dokumentuak aurkeztu beharko dituzu.

Amaitzeko, euskara ezagutzaren mailaren datuak ofizioz egiaztatuko ditu administrazioak.




“**HURRENGOA**” botoia sakatu.

## 2.4. Sinatu eta bidali

Pausu honetan, eskabide osoa ikusiko duzu beteta, ondo dagoen ikusteko eta balidatzeko. Ados bazaude, “**SINATU ETA BIDALI**” botoia hautatuko duzu.

**“Eskabide elektronikoa”** egiten baduzu, hasieran egin bezala, itsasontzi-jokoaren b@kq txartela erabiliz sinatu beharko duzu (hiru letra emango dizkizu sistemak eta zuk dagozkien zenbakiak sartu beharko dituzu). Sinatu eta bidali ondoren, ondoko pantailak agertuko dira:




Zure eskabidea ondo sinatu eta bidali da.

Erregistroaren frogagiria deskargatu eta gorde dezakezu **lortu erregistroaren frogagiria** estekaren bidez.

Espedientea kontsultatu ahal izango da Nire Karpetan minutu batzuk igarota.




Erregistroaren frogagirian daude:

- Erregistro-zenbakia
- Erregistro-data
- Eskabidearen jasotze-data
- Administrazio-isiltasunaren ondorioa
- Ebazteko gehienezko epea




Aukeratu “**ESKABIDEA DESKARGATU**” botoia eskabidea gailu elektronikora deskargatzeko edota inprimatzeko.




**Eta prozesua amaitu duzu, dirulaguntzaren eskaera aurkeztuta daukazu.**

## 3. ESKAERA OSATU (formularioa bete) AURREZ AURREKO AURKEZPENAREN BIDEZ

Dirulaguntzarako eskabidea aurrez aurreko aurkezpenaren bidez egiteko pausuak hauek dira:

1. Lehen pausua: Identifikatu
2. Bigarren pausua: Datuak bete
3. Hirugarren pausua: Dokumentuak erantsi
4. Laugarren pausua: Gorde
5. Bosgarren pausua: Inprimatu eta Administrazioan entregatu

### 3.1. Identifikatu

Nahitaez bete beharreko datuak dira (*) izartxo gorriz markatutako eremuak.

Lehenik eta behin, identifikazio-datuak bete, eta ondoren “ONARTU” botoia klikatu.




Ondoren, zure izenean (titular gisa) ala beste pertsona baten izenean (ordezkari gisa) jardungo duzun adierazi.



Ordezkari gisa arituz gero, espedientean interesduna edo onuraduna den pertsonaren datuak adierazi.




Ondorengo JAKINARAZPENETARAKO DATUAK fitxan, honako datu hauek bete beharko dira:

- Jakinarazpen-hartzailea
- Jakinarazpen, komunikazio eta abisuen hizkuntza
- Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala
- Abisuak jasotzeko datuak
- Datuak erabiltzeko baimena
- Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa

## 3.2. Datuak bete

**“Aurrez aurreko aurkezpena” egiten baduzu, formularioa hutsik egongo da eta atal honetako datu guztiak sartu beharko dituzu.**

OHARRA: formularioa betetzen ari zarela, eskatzen zaizkizun zenbait datuekin zalantzak badituzu (egiaztatutako mailak, euskaltegietako zure ibilbidea, ibilbide akademikoa…), www.habe.euskadi.eus / HASI SAIOAn sartu eta HABErako duzun zure ERABILTZAILEA eta PASAHITZA erabiliz kontsultatu ahal izango dituzu.

Eskabide-inprimaki guztiek dute “IKASLEAREN DATUAK” izeneko hasierako fitxa eta “ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK” izeneko amaierako fitxa. Bi fitxa horien artean, egiaztatutako mailak eta ordaindutako matrikula-gastuak agertuko dira fitxetan antolatuta.




Eskabidea betetzen ari garela, sartu ahala, datuak gordetzen joatea komeni da (Word-en daukagun “Gorde honela...”  aukera bezala), “**Eskabidea gorde**” aukera erabilita. Horrela, gorabeheraren bat gertatuz gero (saioa amaitu, tentsioa eten, eta abar), sartutako datuak ez ditugula galdu ziurtatuko dugu.

OHARRA: “Eskabidea gorde” aukerak **EZ du esan nahi** eskabidea bidali eta Administrazioan erregistratuta geratu denik.




“IKASLEAREN DATUAK” fitxan eremu hauek daude:

- Ikaslearen datuak harremanetarako.
- Harremanetarako telefonoak.
- Bankuaren datuak

Ondoren, maila egiaztagarriak fitxa ikusiko duzu.




Ondoren, “ORDAINDUTAKO MATRIKULA-GASTUAK” ikusiko duzu.



# HABE

“ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK” izeneko fitxan daude bilduta laguntzen deialdiaren araudian aipatutako erantzukizunpeko adierazpen guztiak.

**ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK** Ezkutatu

**Erantzukizunpeko adierazpenak**

Aitortzen da:

**Bateragarritasun-adierazpenak**

- ☐ Ez da laguntzarik jasotzen ari xede eta helburu berarekin administrazio publikoen edo erakunde pribatuen eskutik.
- ☐ Administrazio publiko edo erakunde pribaturen bati laguntza eskatu dio eta eman egin dio (atal honetako datuak "Beste diru-laguntzak" eremuan zehaztu behar dituzu).

**Zehapen-deklarazioak**

- ☑ Ez du diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzea galarazten duen administrazio-zehapen edota zehapen penalik.
- ☑ Ez du diru-laguntza publikoak jasotzeko ez-gaitzen duen legezko debekurik, berariaz adierazita sexu-bereizkeriagatiko debekuak.
- ☑ Itzulketa- edo zehapen-prozedura guztiak amaituta dituzu

**Baimenak**

☐ * Pertsona fisikoen datu pertsonalen tratamendurako eta babeserako Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduak ezarritakoaren arabera eta Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa betez, baimena ematen dio HABEri bere datuak HABEren IKASLEAK izeneko fitxategi informatizatuetan sartzeko, erakunde honek, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea Sortaraztekoa eta Euskaltegiak Araupetzezkoa izeneko azaroaren 25eko 29/1983 Legeak ematen dizkion ahalmenen arabera, dagokion diru- laguntzen programa burutu dezan eta, diru-laguntzen arteko bateragarritasuna bermatzeko, datu horiek Euskal Autonomia Erkidegoko foru aldundiek eta udalek helburu berbererako dituztenekin erkatzeko.

Baimen hori berak bere oldez egina, era zehatzaz, aldez aurretik jakinaren gainean egonda, zalantzarik gabea eta epe-mugarik gabekoa da eta erantzukizunpeko adierazpen honen bitartez ematen du. Era berean, honen bitartez ere, aipatutako araudian aurreikusitako sartzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkaratzeko eskubideak HABEren Zuzendaritza Nagusiaren aurrean (Vitoria-Gasteiz kalea 3, 20018 Donostia) gauzatu ahal izango dituela adierazten du.

**OHARRA: Nahitaez bete beharreko datu** guztiak sartu eta gero, “**HURRENGOA**” botoia aukeratuko duzu.

### 3.3. Dokumentuak erantsi

Dokumentuak eransteko GEHITU BESTE MOTA BATEKO DOKUMENTUA aukera erabili behar da.

Oharra: Egiaztatutako mailen ziurtagiriei dagokienez, Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan (ETZEB) jaso ez direnak soilik erantsi behar dira.

Eskaera

**2018/2019 ikasturtean HABEren euskara-mailak edo baliokideak gainditu dituzten ikasleei dirulaguntzak.**

Kodea: 1038702

1 Identifikatu — 2 Datuak bete — 3 **Dokumentuak erantsi** — 4 Gorde — 5 Inprimatu eta Administrazioan entregatu

Prozeduran eskatzen diren dokumentu motak ikus ditzakezu jarraian. Dokumenturen bat igotzeko, sakatu *Erantsi*. Mota bereko dokumentu gehiago eransteko, sakatu *Gehitu*. Beste mota bateko dokumentuak gehitzeko, sakatu *Gehitu beste mota bateko dokumentua*.

**Eskatutako dokumentu motak**

| Eskatutako dokumentak | Igotako dokumentuak | Ekintzak |
|---|---|---|
| Egiaztatutako euskara-mailak eta agiriak (HABErenak izan ezik) | | Erantsi Aurkeztua |

GEHITU BESTE MOTA BATEKO DOKUMENTUA

HABEk ofizioz egiaztatuko ditu eremu honetan zerrendatzen diren datuak.

**Organo instrukzio-egileak ofizioz konprobatzea**

Aplikatu beharreko araudiaren arabera, prozedura honetako organo instrukzio-egileak datu hauek konprobatuko ditu eskumena duen administrazioan:

- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatearen datuak (Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia (GSDN))
- Zerga-betebeharren ordainketa egunean izatearen datuak (EAEko Foru-aldundiak eta Zerga Administrazioko Estatu Agentzia)

☐ Espresuki aurka egiten diot prozedura honetako organo instrukzio-egileak ofizioz konprobatzeari (39/2015 Legearen 28. artikulua)

Kontrakotasun espresua agertu baduzu, prozeduran eskatzen diren dokumentuak aurkeztu beharko dituzu.

OHARRA: Egiaztatze horren aurka egonez gero, eskatutako dokumentuak aurkeztu beharko dituzu.

Amaitzeko, euskara ezagutzaren mailaren datuak ofizioz egiaztatuko ditu administrazioak.

**Organo instrukzio-egileak ofizioz konprobatzea**

Aplikatu beharreko araudiaren arabera, prozedura honetako organo instrukzio-egileak datu hauek konprobatuko ditu eskumena duen administrazioan:

- Euskarazko ezagutza mailaren datuak, Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan (ETZEB) kontsulta eginda

Ez da interesatuaren oniritzirik behar datu hauetara sartu ahal izateko.

"**HURRENGOA**" botoia sakatu.

## 3.4. Gorde

Sistemak informazio osatua erakutsiko dizu. Egiaztatu, mesedez, sartutako datuak zuzenak direla. Hala bada, hautatu “**BUKATU**” botoia.




**ADI!**




Eskabide hau baliodunа izan dadin, gogoratu egin beharrekoa (hurrengo pausuan):

1. inprimatu inprimakia,
2. eskuz bete eta sinatu,
3. eta prozeduran horretarako ezarritako epean eta lekuetan aurkeztu.

Hautatu “**GORDE**” botoia.

## 3.5. Inprimatu eta Administrazioan entregatu




Eskabide hau balioduna izan dadin, gogoratu egin beharrekoa:

1. inprimatu inprimakia,
2. eskuz bete eta sinatu,
3. eta prozeduran horretarako ezarritako epean eta lekuetan aurkeztu.




Zure eskabideak **QR kode** bat dauka

Hautatu "**ESKABIDEA INPRIMATU**" botoia.




Hautatu inprimagailuaren ikonoa



zure eskabidea inprimatzeko.

# HABE




Eskuz sinatu eskabidea.

Eskabidea prozeduran horretarako ezarritako **epean eta tokietan** entregatu.


EAEko Administrazio Publikoa

Erregistro elektronikoa. Aurkeztutako dokumentuen agiria

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Erregistroko datuak

Igorlea

Jasotzailea

HABE, HELDUEN ALFABETATZE BERREUSKALDUNTZERAKO ERAKUNDEA

Gaia

Ikasleen diru-laguntzak 2018 (Erref.: 1038701)

Administrazio-isiltasunaren ondorioa

Ebazteko gehienezko epea

Erantsitako dokumentuak

Eskabideak aurkezteko tokietan eskanerrak daude zuk paperean aurkeztutako dokumentuak digitalizatzeko.

Eskabideak aurkezteko tokietan zure eskabidearen QR kodea irakurri eta dagokion "**Erregistroaren frogagiria**" emango dizute

Gogoan izan, "AURREZ AURREKO AURKEZPENA" hautatzen baduzu, prozesua amaitzeko, eskaera inprimatu eta sinatu ondoren honako toki hauetakoren batean aurkeztu behar duzula: ZUZENEAN zerbitzuko edo HABEren edozein bulegotan edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen (urriaren 1eko 39/2015 Legea) 16. artikuluak zehaztutako tokietan, eta EAEko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko Dekretuan (apirilaren 29ko 72/2008 Dekretua) adierazitakoetan.

HADE

## AZKEN OHARRA

Eskaera eskabide elektronikoaren bidez edo aurrez aurreko aurkezpenaren bidez aurkeztu ondoren, gainerako eginkizunak eta izapideak “**Nire karpeta**”, herritarrentzako eremu pertsonalizatuaren bidez egingo dira.

“**Nire karpeta**”-n Eusko Jaurlaritzako egoitza elektronikotik sar daiteke: www.euskadi.eus/nirekarpeta

### “Nire karpeta”-n sartzeko, modu seguruan identifikatu behar duzu zure burua, identifikazio elektronikorako onartutako bitarteko baten bidez: ziurtagiri digitala edo itsasontzi-jokoa (b@qk txartela).

